

Goibek kale

Elgetako aldizkaria maiatza 46zk.

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

**Mendizaleetasuna
bizirik**

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

Elgetako Goñi

Esan beharra daukat aurreko Goibeko-kaleko kiroletako izenburua eta eduki-na asko gustatu zaizkidala, baina ez dut artikulua kritikatzeko idazten. Egia esan barkamena eskatzeko idazten dut, egin nituen kiñadak ez baitzituen iñork espero nire partetik.

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkizuet, nahiz eta kiñada txarrak egin, asko txalotu ninduzuelako.

Bi mila esker

David Peñalver

Erakusketa bai, jolastokia noiz?

Herri Eskola berria zabaldu zenetik 4 urte igaro dira.

Guraso elkarteak, eskola berriak jolastoki estalia ez duela eta, sarritan aurkeztu du kexa Udaletxean.

Kontuan izan behar dugu, Elgetan, ikasturte sasoian, askotan egiten duela eguraldi txarra eta umeek ez dutela non jolastu. Eguraldi txarra deneko leku ezak, jolastorduetan gela barruan egon beharra eragiten du.

Gaur arte Udaletxearen aldetik erantzun kontrajarriak jaso ditugu.

Bestalde, Mendi Federazioaren 75. urteurrena ospatu dugula eta, hiru hilabetetan Udalak goiko lokala konpondu du (klase orduetan, zarata eta guzti) erakusketa bezala erabili ahal izateko.

Argi dago lehentasunak zeintzuk diren.

Gure lehentasuna, Elgetako Herri Eskolan jolastoki egoki bat eukitzea da.

Horregatik, gure pankarta eta pintaden bitartez azaldu dugu gure protesta. Eta hasi besterik ez gara egin.

Elgetako Guraso Elkarte.

Oharra

Hurrengo alia berandutxuau etaratzeko asmua dakagu. Azoka nagusi ostekuak etara nahi dittugu, eta horretarako hartuko doguz egun batzuk. Dana dala, uztaillako bigarren astian etxeke buzoian izango dozu Goibeko-kale, fin-fiñ.

Erredakzio kontseilua

Zarraparrak

Oingo hillabetian beste barri kostauko da hurrengo baten egotia. Zeozela aurre egin bihar eta danak, edo gehixenak, etaratzia pentsau dogu.

Asentzio eguna izan zan lehenengo. Euripian egindako jai-xa aurtengua, baiña ez horregaitik txarraua. Giro ona eta hurrengo urterako animua berriro.

Mendi federaziñuak, nun eta Elgetan egin dittu 75. urteurreneko ekitaldixak. Herri guztiak hartu dau parte zela edo hala. Egun haundixa izan da, bai Mendizalien-tzako, bai Elgetarrontzako.

Hauteskundiei zelan ez dotzagu egingo tartia ba. Oñarte zinegotzixak izan dittuen bi partiduetako jendiak zer diñuan jakitzia gura izan dogu. EAJ-PNV eta EHK guk egindako galderak erantzun dittu. Hurrengo alian be izango dau jarraipena, izan be, hurrengo lau urterako alkate eta taldia jokuan dago eta.

Lehen notizia gutxi eta guk beste atal barri bat sartu dogu. Hemendik aurrera, etxian hartzen dittuzuen ale guztietan, errezetia biharrian ZARRAPARRAK deitzen dan atal barrixa sartuko dogu.

ZARRAPARRAK danok dakixue zertzuk diran: kontakatillukerixak, gai serixuak, azkenengo momentukuak, elkarrizketa motzak, orribeteko iritzixak... Danetik pis-kat.

Nahikua Zarraparra zarra-partazale diranentzako.

Danetik,

danerakuak,

danontzako.

Erredakzio kontseilua

AENOR

ER

Empresa Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 6



Eredu suediar, finlandiarra....

Morbaiti konfidantza eman aurretik ezagutu egin behar zaio. Horrela gertatzen da bizitzako edozein arlotan. Herri txikietan

abantaila edo desabantaila hori dago, elkar ondo ezagutzeko aukera dugula.

Gurea bezalako herri baten, ez zaio konfidantza politikari ematen, politikorik ez baitago. Udal hauteskundeetan batipat, pertsonen talde bati ematen zaio botua.

Gehienetan konfidantzagatik ez bada ohituraz ematen dugu botua eta ez dut uste hau onuragarria denik. Ohituraz botua emateak, konfidantza eman baino, utzikeria adierazi bait lezake eta ondorioz herriaren ongizatean eragin. Gure botua erraz asko lortzen dute ahaleginik gabe. Jakinarazi al digute zer nolako politika eta helburuak izango dituzten? Edo herritarrei galdetu al digute gure kezka eta ideiei buruz? Estatu mailan edo probintzi mailan ia ezinezkoa da iritzi hau biltzea baina 1.000 biztanle dituen herri baten? Ez al da hori jakitea zuon, ordezkari onak?

Udaletxean izango ditugun ordezkariak, alde batekoek zein beste koek interes honen bila aritu beharko lukete. Orain urte batzuk egon zen ahalegin bat. Talde sozial desberdinak bildu ginen udaletxean, etorkizuneko Elgeta nolako nahi genuen aztertzen. Arlo guztiak eztaibadatu ziren, lana, ingurugiroa, etxebizitza, proiektu urbanistikoak... Zergatik ez zen iritzi haien ondorioz argitaratu? Zein izan zen emaitza? Orduan bildutako iritziak eta lanak zerbaietetarako balio izan dute ala interes ekonomikoak maneiatzen gaitu? Herria eta herriko bizitza baloratzen dugulako bizi nahi dugu hemen, bizi kalitate ona eskaintzen duelako.

Orain 20 urte inguru "espedizio" bat egon zen iparraldeko herrialdeetara. Handik jaso omen zuten herri moderno eta berri baten antolakuntza egiteko oinarriak. 20 urte pasa dira, zoaz orain Europako herrialde garatuak herrixkak ezagutzera ea non aurkitzen duzun, trafikoa eta fabrikak soilik garatzen diren 1000 biztanleko herriak.

Ana Gillegi



Abstentzioaren balioa

Mire abstentzioa ez da pasotismoa, erabakitako aukera baizik. Bizi garen sistema politiko honek nora

ekarri gaituen ez nau komenitzen eta aurrikuspenek ez didate etorkizunerako itxaropen handirik pizten. Horregaitik, hauteskunde garaiero sistema hau perpetuatzeko balio duen botuaren eske datozenean, nire jarrera aktiboa jokoan parte ez hartzea da.

Ez diot zentzurik ikusten alderdi baten edo bestearen alde egiteari, guztiak berdintsuak baitira, alferrikakoak sistema bera egokia ez denean. Batak zein besteak, sistema politikoak berak, sobera demostratu dute ez dutela balio gizarteak dituen gabezia eta arazo oinarrikoak konpontzeko, sikiera hobetzeko ere. Guztiak eskaparatean erakusten dituzten helburuetatik (berdintasuna, aberastasun soziala, garapen orekatua, errespetua, giza balioak... nahi dituzuenak erantsi eta edozein alderdiren programan aurkituko dituzue) gero eta urrutiago gaude, azterketa guztien arabera.

Parte hartzea, jokoan onartzea da. Eta nik ez dut onartzen. Nahiz eta gero, herritar bezala, nire herria gestionatzen dutenekin harremanetan jardun behar. Horrela dago montatuta eta horrela lan egin beharko dut bizi naizen tokian bizi naitzelako, baina antolamenduak dagoenetan jarrai dezan abal bila datozenean, orduan nire iritzia kontrakoa da.

Herri txikietan bai sinesten dut, herri osoa bildu, helburuak markatu, eta aurrera ateratzeko herritar-gestore talde bat aukeratzen duenean. Goitik datozen siglak tartean sartzen direnean, ordea, alderdikeriak herriaren interesak baino erabakiorragoak direnean, izorrai. Eta gure inguruan, begiak zabaldu eta adibideak ugari eta gertukoak dira, alderdikeriak herrigintzarako oztopo dira eguneroko.

Ah, eta ez naiz insolidarioa. Herrigintza egiteko, politika ez da bide bakarra. Zorionez.

Patxi Montero

Erakundearen izena
kutxa fundazioa
fundación



Eusko Jaureritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldirakaria



Aldizkari honetako
Elgetako Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honetako
argitaratzailea

GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarrieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).

Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.jalgi.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldirakarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

197 milioko aurrekontua onartuta

Apiariak 28an EAJko lau zinegotziren baieztokarekin eta HBko bakarraren ezeztokarekin 99ko aurrekontuak onartu ziren.

197 milioitik 70 milioi inbertsioak dira.

Iazko aurrekontuetan Udaletxeak 35 milioiko irabaziak lortu zituen.

Aurtengo aurrekontuak iazkoak baino 50 milioi gehiago ditu.

Udaletxeak 197 milioiko aurrekontua onartu du. Aurrekontu

hauetan gastu aipagarriak daude: Kiroletako materialetan iaz baino 200.000 pta gehiago inbertitu dira. Udaletxeko langileen soldaten batuketara 37 milioikoa da. Herriko jailetako aurrekontua ia 4.500.000 pta-koa. Erabilpen askotarako aretoan 10 milioi pta. inbertitutoko dira. 17 milioi baino gehiago herriko planeamentura joango dira.

Udaletxeak dituen diru iturriak, aurrekontuetako 197 milioiak horietatik ordainduko dira. Diru iturri garrantzitsuenak herritarrok ordaindutako zergak, diputazioa, industrialdea... dira.

Gaztetxearen apostu berria "gurebonua"

5.000 pta. ordainduta ekintza guztietara deialde sartzeko aukera

Badira dagoeneko 3 urte herriko gazteek Gaztetxea lortu zutenetik. 3 urte hauetan egindako ekintzak ugariak izan dira. Orain apostu bat egin nahi dute "gurebonua" deitutako txartelarekin.

"Gure bonua" ekain erdialdetik aurrera herriko tabernetan salgai egongo den bonoa da. Bono honen

kostua 5.000 pta. izango da, langabetu eta ikasleek bi plazotan ordaindu ahal izango dutelarik. Bono honekin Gaztetxeakoek antolatzen dituzten ekintza guztietan sarrera doan izango da. Honetaz gain antolatzen diren autobus, bazkari, ikastaro, etab-etan ere deskontuak egingo dira.

Gaztetxearen

esanetan "gurebonua"-rekin lortu nahi dutena, ekintzetara joatea nahi duenarentzat dirua oztipoa ez izatea da. Bestalde, bonoa Gaztetxea herrira zabaltzeko bidea izan daitekeela uste dute.

Bonoa lortzeko argazkia eta 5.000pta. eraman behar dira herriko edozein tabernetara.

Elizaren historia laburtua

Andre Mariaren Zeruratzea elizaren historiari buruzko informazioa batzen duten idtzi batzuek prestatu dituzte eliza bisitatzea gura duenarentzat. Idatzi hauetan elizari buruzko historia laburra agertzen da lehen-dabizi. Ondoren, eliz-solairuaren planoaren bidez elizan dauden hainbat txokoren informazioa agertzen da.

Honekin, Elgetako elizara bisitan etortzen direnentzat datu batzuek prestatuta edukitzea nahi izan dute.

Ibilaldia 99n laguntzeko 70 lagun

Elgetatik 70 lagun inguru arituko dira, Elorrioren ekainak 6an ospatuko den Ibilaldiari laguntzen. Argiñetan egongo den Natur gunea egokitu zaio Elgetako taldeari. Bi turno egingo dira, bata goizeko 9:00etatik 14:30etara eta bigarrena 14:30etatik 20:00etara.

Gunea honetan barran, txartelak saltzen, garbiketa lanetan... arituko dira 70 lagunok. Gunea bi zatitan dago banatua eta elgetarrena A gunea da. Bertsolariak, txanbela, ipuin kontalariak eta trikitixa kontraio izango dira ikusgai.

Ekainak 11n hirugarren adinekoen olinpiadak

Ekainak 11n, barikua, hirugarren adinekoen olinpiadak izango dira Elgetan. Olinpiadetara bailara guztietako jubilatuek etorriko dira. Olinpiadetan parte hartzeko bailarako udaletxetako kirol zerbitzuetan izena eman behar da.

GRUPO
IFA
Produkturik onenak,
prezio onenean
Tel: 76 80 98.
ALDI

Bandoni Bolinaga
METALAK
FS7 18
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Asentzion eguraldiari aurrea hartu

Ermita margotu berrian jende ugari batu zen mezako orduan

Herriko gazteak goiz hasi ziren jendea Asentziara igo orduko dena prestatu egon zedin. Hala ere, eguerdian botatako euri zaparradak jaiaren amaiera herriko plazan izatea behartu zuen.

Asentzio eguna berreskuratu zenetik bertara hurbiltzen diren elgetar eta kanpotarrak ugari dira. Aurten ere ekintza ugari zeuden antolatuta, hala ere antolatzaileen esku ez zegoen bakarrak, eguraldiak, huts egin zuen.

Herriko trikitilariak alaituta jendea baten joan zen goizeko 11:00k alderako. Arrantza txapelketan neska mutiko askok hartu zuten parte eta Alainez irabazi zuen

aurten. Arrantza alde batera lagata, nagusienez Gure Bordan geldialdixoa egin zuten salda eta txorixoarekin hamaiketakoa egiteko.

Ermita ere egunerako margotu berria zegoen. Meza ostean Elgetako Dantza taldekoak bere saioa egin zuen Arantza txistulariak lagunduta. Gurasoek azkenengo hilabeteetan erakusle lanean aritu direnei erramu bana oparitu zieten.

Ondoren, Moises Azpiazu Dantza taldeko 8 bikotek beren abilitadeak erakutsi zituzten arin arin eta fandangoan.

Ordurako euriak busti-busti eginda utzi zituen Asentzioko txoko guztiak eta jai herriko plazan jarraitzea erabaki zen. Urtero bezala, bazkaria gertatzen aritutakoek bazkari goxoa prestatu zieten batu ziren ia 100 laguneri.

Gesalagatarren soinuak bazkari ostean alaitu eta 99ko Asentzio egun bustiari amaiera eman zitzaion.

Zozketako urdaiazpikoa Jone eta Izaskun Oiangureni tokatu zitzaion.



INAKI JATETXEA

Leku paregabea,
eguneko menua
Tel: 943 76 82 83
Astelehenetik ostiralera
zabalik goizeko 9:00etatik

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA
Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Ekainaren 20an izango dira hauteskundeak Angiozarren

Angiozar Bailarako Batzarreko kideak eta Alkatea aukeratuko dira

Udaletarako, Batzar Nagusietarako eta Europako Parlamenturako hauteskunderen ondoren, aste bete geroago, egingo dira hauteskundeak Angiozar Bailarako Batzarra aukeratzeko eta, bide batez, datozen lau urtetarako Alkatea izango dena izendatzeko.

Hogeitabi urteko historia

1977an, Franquismoaren bukaerarekin hasi zen berriz boto zuzenaren bidez alkatea aukeratzeko, apur bat geroago egingo ziren Udal hauteskunderen aurrea hartuz. Garai hartan erabili zen sistema "sua-rena" deiturikoa izan zen, hau da, etxe bakoitzak boto bat ematen zuen eta aukeratzeko zena alkatea zen bakarrik. Dena den, hauteskunde horien ondoren alkateari laguntzeko lan taldea eratuta geratu zen eta hurrengo hauteskundeetatik aurrera hauek ere aukeratzeko hasi zen. Nahiz eta Batzarrean parte hartzeko aukera irekia mantendu gaur egunerarte, edonork parte har dezake Batzarrean, honek egiten dituen bile-retara hurbilduz eta gai baten edo beste baten gainean duen eritzia emanez.

Aukeraketa prozedimendua eta Batzarren osaketa

Angiozar Bailarako Batzarreko kideak ondoko sistema jarraituz aukeratzeko dira: Angiozar Bailarako auzo bakoitzeko

(Goimendi, Zabaltemendi, Mainddao, Parteitti, Azkuneta, Errekalea eta Kalea) bi ordezkari, kalea izan ezik, kaletik lau ordezkari aukeratzeko dira, eta Asentziotik bat. Beraz, boto papeletan hautesle bakoitzak bi izen ipintzen ditu norbere auzokoak direnak eta beste bat alkatetarako gustoko duenarena. Angiozarren bizi diran hamazortzi urtetik gorako guztiak dira botoa emateko gai eta, era berean, aukeratuak izateko hautagai.

Sistema honekin ez da nahi edozein herritarren partehartze zuzena mugatzerik, alderantziz, auzo guztiak ordezkatuak egotea aseguruak besterik ez da nahi, horrela inor Batzarrean ez joateagatik auzoko erizirik jakin barik gelditu ez dadin.

Funtzionamendua eta zeregina

Batzarreko kideak lan taldeetan daude banatuta, Alkateak zuzenduta gai bat edo beste hurrengo Batzarrean landuta eramateko. Lantaldeak ondokoak dira: Etxebizitzak, baserri eta auzoetarako bideak, egitureteka eta antolaketa, lanen jarraipena, jaiak, etab. Angiozar Bailarako Batzarren zeregina da herritarren beharraz zeintzu diren aztertu



Datorren ekainaren hogeian egingo dira Angiozar Bailarako Batzarra aukeratzeko hauteskundeak

ondoren lehenetsunak ezartzea eta erakundeekin, Bergarako Udalarekin batik bat, harremanak izatea horiek burutu daitezela.

Sortu zenetik oso prozesu aberatsa izan da Batzarren zeregina. Bere lanaren ondorio izan dira denontzat lortu ditugun hainbat hobekuntza: bideak, pistak hormigonatzea, ur hornidura berria, eskola berria, argiak auzoetan, telefonoak etxe guztietan. Denok elkarrekin lana eginez eta parte hartuz lortu dezakegunaren adibide.

Hauteskunde lekua eta alkatea izendatzeko bidea



Beraz, denok gaude gonbidatuta hauteskunde hauetan parte hartzera. Horretarako boto emale bakoitzari bidaliko zaiz-

kio botoak etxera, jarraitu behar duen prozeduraren batera, hau da, dago-kion auzoko ordezkariak aukeratzeko eta alkatea aukeratzeko.

Ekainaren 20an, goizeko bederatzietatik aurrera, botazio mahaia zabalik egongo da Saloian, bertara joan eta botoa emateko.

Emaitzak egunetan bertan jakingo dira eta auzo guztietako tabloietan publikatu. Hurrengo astean aukeratuak Batzar berriak egingo duen lehen bileran izendatuko da alkatea eta horrela proposatuko zaio Bergarako Udalarari Angiozar Bailarako ordezkari izan dadin.


Alkate aldaketa San Migeletan egingo da jendaurrean, Parrokiako elizpean.



Agenda bat zan asmau biharrekua. Liburu bat zala esatiakin ez geuzen konforme,, baiña egon da Egunkariako liburu dala esan dabenik be. Berbak irakurtzen ikasi dau bateronbategen desenfokautan egon arren. Bata esan, edo bestia, horrek danok sartu doguz zozketan eta irabazle Jose M^a Untzetabarrenetxea izan da.

Hurrengiak be irabazi leikez pare bat kamiseta. Asmau biharrekuak ez daka berbak. Erderaz erabilixaua da honen animalixonen izena, hala eta be, guk euskerazkua eskatuko dogu. Pista moduan esan, Angiozar inguruan etarata dagola erretratua, para je oso polit baten.

Honezkero jakingo dozue zer dan eta idaztia besteik ez jatzue geratzen. Asmau ostian bialdu Goibekokalera, Kultur Etxian gare.



Ostirala	Larunbata	Igandea		
4	5	6	?	13-an "Bos"-Katu
11	12			
18	19	20		

Ze emaitza espero dozu datorren hauteskundietan?



Beatriz Basauri
Bihargiña (34 urte)

Pentsatzen jata E.H.k irabaziko dabela, egoeria ona dalako danian, herrixan talde ona dagolako eta lanerako prest dagozelako.


Auskalo zer urtengo daben, batek daki. Ni Elgetan bizi izan naizen guztian E.A.J.k urten dau eta oinguan be bardiñian jarraituko dabela pentsatzen jata.

Balenita Elorza
Bihargiña (415 urte)



Santi Arantzabal
Bihargiña (51 urte)

Aukera gehixen, uste dot, linguak dakala, E.A.J.k dakala, jendia modu batera ohi-ttu da eta hori aldatzia oso gatxa dalako. Gero E.H.k eta hurrengo E.A.k.



Sergio Bouzas
Bihargiña (23 urte)

Nere ustez E.H.k urtengo dau, gazterixa asko dagolako eta herrixan indar haundixa dakalako.

Ez dakitt zer pasauko dan, baiña pentsatzen jata linguak jarraituko dabela. Jendia ohi-ttuta dago beti bardiñai botua emoten eta partidua aldatuko balitza be, pentsatzen dot Patxik etarako leukela gehiengua.

Sorkunde Arotzena
Bihargiña (31 urte)



Pentsatzen jata linguak jarraituko dabela, listetan pertsona nagusi-xauak dagozelako eta jendiak errespon-sabliauak dia-zela uste dabelako.

Arrate Elkoro
Bihargiña (57 urte)



ELKORO TORLOJU LANTEGIA
DEKOLETAIA ETA
ELJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

9
4
L
E
A
P
A
7
N
D
E
G
7
A

M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67

Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Kopa bat

Patxi Taberna

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIV
Janari
denda

ARIES: Bikoteko arazuak konpontzia gura boitxuk/boitxun, hire jokaeria aldatu biharko dok/don.

.....

TAURUS: Datorren astian azkenian lagun on bat ezautuko dok/don. Zer pentsaua ekarriko dua/dona.

.....

GEMINI: Kirol apur bat egittiak ez dua/dona kalteik egingo, onerako bakarrik izango dok/don hiretako.

.....

CANCER: Hire umore txarra baztarrin laga biharko heuke, behintzat inguruan batenbat eukitzia gura badok/badon.

.....

LEO: Parrandak alde batera lagatzen hasi hadi eta liburuak mobitzen hasi hadi, azken txanpa bertan jaok/jaon eta.

.....

VIRGO: Hire gelia txukundu biharko heuke, bestela armiarmak, heurenako lekua dala pentsauko juek/jone.

.....

LIBRA: Hire lagunekin pazientzia gehitxuau eduki biharko dok/don heurenkin ondo konpontzia gura badok/badon.

.....

SCORPIUS: Hire begixen dizdiriak edozein maittemintzeko indarra jakek/jaken. Badakik/badakiñ aukeria izan ezkerro aprobeixau!!

.....

SAGITARIUS: Azkenaldixan larregi gastatzen habil, txakur txikirik barikgeratuko haiz oporretarako.

.....

CAPRICORNIUS: Hire bikotia sekula baiño atsegiñau jabik/jabin. Argi!! Begixak ondo zabaldu eta kontuz ibilli.

.....

AQUARIUS: Tripako miñekin, baiña hik ondiokan be txarrikerixak jan bihar. Zaindu be egiñ biharko haiz, ezta?

.....

PISCIS: Udabarrixakin batera hire bikotiakin be gauzak loratzen fango dittuk/dittun. Aukera politta aurrera egitteko.

.....

Rosario Eguren Etxekoandria (52 urte)

- Zertan egitten dozu lan? Etxeko lanak egitten.
- Gustauko jatzun lana aldatzia? Ez.
- Zein ordutan jaikitzen zara goixian? Zazpirak, zazpit'erdiak aldian.
- Zer pentsatzen jatzu 35 orduko lan astia? Ondo.
- Pelotaririk gustokuenak? Elkoro.
- Gustatzen jatzu frontoira fatia? Asko.
- Finalera fateko asmoik badakazu? Bai.
- Zelakua da zure ustez pelotian egoeria oin momentuan? Penagarrixa.
- Denbora libria zertan pasatzen dozu? Josten.
- Zeiñek pentsatzen dozu irabaziko dabela Elgetako 4 1/2ko txapelketia? Ez dot jarraitzen.
- Kantzontzilluak hankadunak ala hankabakuhak nahixau? Hankabakuak nahixau.
- Eguna luzia egitten jatzu? Ez.
- Loterixia tokau ezkerro, zer da lehenengo egingo

ziñukena? Oporretara fan.

- Zeiñ izango da Euskadiko Eskuz Banakako txapeldu-na? Elkoro.

- Zeiñ izango da finaleko erresultaua? 22 eta 18.

- Gustauko jatzun muti-llen striptease bat ikustia? Ez.

- Morenuak ala rubixuak nahixau?

Rubixuak.

- Zeiñ emongo zontzake gustora eskua?

Aitorri.

- Pertsona bat ikustera-kuan zertan fijatzen zara lehenengo? Bere karakterrian.

- Telebistako programaik gustokuenak? Goenkale.

- Josetxo Lizartza ala Xabier

Eguzkitze?

Xabier Eguzkitze.

- Zela gustatzen jatzu ikustia basua, erdi hutsik ala erdi beteta? Erdi hutsik.



Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatua
Etxaurreak

Sukaldeak
Komunak

Otzango Behetako Baserria. Tel: 860156

Bittor Gallastegi: "Gure helburua orain arteko Udaletxeko lan dinamikari beste aire bat ematea da"

Bittor Gallastegi Olabarría Euskal Herritarren hirugarren zerrenda burua da. Hauxe izango da lehen aldia zerrendatan agertzen dena. Gure gonbidapena, zerrenda buru den heinean, Olaia Jimenez luazatu bagenion ere, zerrenda buaruaren irudia bigarren planu batean utzi nahi dutela arrazoituz Bittor aukeratu dute Goibekokaleren galderei erantzuteko.

- Zergatik bozkatu behar zaio zuen alderdiari?

Gure helburua orain arteko lan dinamikari beste aire bat ematea da. Udaletxearen eta herriaren elkarlana bultzatu nahi dugu. Udaletxeko gaiez informatu, zabaldu eta gai horretan inplikatuak dauden taldeekin elkarlanean aritu. Udaltxetik lan egiteko moduruk egokiena dela uste dugu, eta ez zinegotziek erabaki herritarrek ezertaz enteratu gabe. Hau da behintzat gure asmoa.

- Zergatik ez beste alderdiaria?

Orain arteko beraien martxa ikusita... Beraien alkatearen irudia daukate eta horrekin funtzionatzen dute. Herriara

begira ordea, ez dirudi komunikazio handirik dagoenik Udaletxe eta herritarren artean eta hori da, hain zuzen, guk nahi duguna eta beraien aldeetik ikusten ez duguna.

Horretaz gain, PNV-EAJk bideratu dituen proiektu asko, "Proiektu Monstruok" izan dira eta modu apalago batean, herriko jendea kontuan hartuta, egin daitezke hainbat gauza. Ez du ezertarako balio izugarriko Auditoriuma egitea erabilpenik ez emateko. Argi dago horrelako lokal bat beharrezkoa dela, baina hobeto da leku itxuroso bat egin eta bizitza ematea. Herriaren beharretara egokitu behar gara.

- Lizarra-Garazi eta gero EH-EAJ harremana hobe al da? Eraginik izango al du datozen lau urteetan?

Herri mailan lan du behar dugun gai bat da. Jendeari Lizarra-Garazi zer den erakutsi behar zaio. Dena den, Udal Ordezkarien Batzarraren bidez Aberri Egun bateratua egin zen. Espero dezagun harremanak hobetzeko balio izatea.

- Zein alor jorratuko duzue gehien datorren urte-

ko legegintzaldian?

Gai guztiak kontutan hartzekoak dira, ezin da bat ere ahaztu. Kultura eta euskera mundua gehiago landu daitezke. Gainera gure filosofiarekin bat datozen gaiak dira. Kulturak badu herriarekin harreman bat eta hortik sortu behar da. Kultura aktiboa bultzatu behar da, hau da, antolakuntza lanetan edota partaidetzan.

Udaletxea guztiz euskalduntzea da gure helburua eta horretarako Udal Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko proposamena da gurea. Honen bidez, lan mundua eta osasunarena euskalduntzen lagundu dezakegu.

Goibekokale ere bultzatu egin behar da eta finkotasun bat eman. Elgetako euskara ere bultzatu behar dugu.

- Orain arte kultura nahi-ko ahaztuta egon da. Datorren legegintzaldiari begira zein da proposamen zehatza?

Lokal bat beharrezkoa dela uste dugu. Leku hori edukita hurrengo pausoa kultura jorra-



tzen duten taldeekin harremanetan jartzea izango litzateke: Gaztetxearekin, dantza taldearekin... eta hori guztia bultzatu. Guk batez ere kultura aktiboaren aldeko apostua egin nahi dugu.

- Goibekokalek emandako aukera hau aprobetxatuz, zer esango zenioke herriari?

EHren mugimendu berriak jende ezberdina hartzea du helburu eta hau bultzatzea izango zen helburua, baita Elgetan ere. Bakoitzak gustoko duen alorrean eta iritzia eta proposamen propioak eman.



Olaia Jimenez Arrieta

Elgeta, Lizarra-Garazi txikiarekin eraikiko dugu.



Xabier Basauri Olaortua

EHrekin batera, Elgeta aurrerakoi baten alde.



Amaia Askasibar

Aurrerako lana talde lanean egiteko asmoa dugu.



Segundo Urizarbarrena Abertzale guztiok elkartuta hasteko ordua denez, boto abertzalea eman.

Patxi Basauri: "Orain arte erakutsi diguten konfidantza ematen jarraitzeko eskatzen diogu herritarrari"

Patxi Basauri Elkoro 1976.eko otsailaren 2an izendatu zuten Elgetako alkate. Ordudanik 23 urte igaro dira eta bere postuan darrai oraindik. Bere ibilbide politikoa independente bezala hasi bazuen ere, duela bi legegintzaldi EAJ-PNVra pasatu zen. Elgetar askok ez dugu beste alkatetik ezagutu.

- Zergaitik bozkatu behar da zaio zuen alderdiari?

Lehendabizi argi utzi behar da EAJ-PNV eta Eusko Alkartasuna batera aurkeztuko garela.

Arrazoi asko eman ditzaket guri botua emateko. Azken urte hauetan industria arloan eta baita beste arlo askotan ere egin den lanari gainbegiratu bat ematea besterik ez dago. Guk egindako gestioak ziur akatsak izan dituela, baina orohar ona izan dela uste dut. Gainera, datozen urteetarako oso garrantzitsua izango da beste hainbat gauza egiteko.

- Zergaitik ez beste alderdiari?

Nik ez dut esaten EHri ez botatzeko. Norbaitek uste badu EHLan ona egin dezakeela, norberak erabaki dezala. Guk ez dugu esango nori ez bota baizik eta guri botua emateko.

- Lizarra-Garazi eta gero EH-EAJ harremana hobe da? Eraginik izango al du hurrengo urteetan?

Udaletxera begira Lizarra-Garaziko akordioa oso berria da eta esan daiteke oraindik ez dela igarri. Dena den, gauza batzuk egin dira batera, hala nola, manifestaldietara joan, egonaldia etab. Gerora begira, herriari dagozkiongaie-tan bakoitzak bere aldetik hartuko ditu erabakiak. Euskal herri mailan berriz, ziur naiz akordioak egongo direla.


- Zein alor jorratuko duzue gehien datorren urteko legegintzaldian?

Ekonomikoki eta lan kontuan herria ongi dagoela ikusita, guk kultura, euskara, aisialdia eta turismoaren aldeko apustua egingo dugu, kirola ahaztu gabe. Ez bakarrik datozen lau urteei begira,

baizik eta datozen zortzi edo hamar urteei begira. Alor hauetan aurrekontua gehitueta beraien aldeko apustua egin.

- Orain arte kultura nahiko ahaztua egon da. Datorren legegaldiari begira zein da proposamen zehatza?

Maialako "Auditoriuma" eta goiko lokala bukatzeaz batera, gauza ugari egin daitezke bertan, hala nola, kantaldiak, mahainguruak... Bestalde artxibo fotografiko bat eta mendiari buruzko museo bat egiteko asmoa ere badago. Ideia hau Mendi Federakundearen 75. urteurrenean bururatu zitzaigun. Hala ere, ideia hau aurrera eramatea posible den aztertu beharra dogo oraindik. Liburutegia informatizatzea ere nahi dugu, inguruko herrietako liburutegiekin harremanetan jartzeko eta gazteen beharrei erantzuteko.



- Goibekokalek emandako aukera hau aprobetxatuz, zer esango zenioke herriari?

Azken urteotan herriak bere konfidantza eskaini dio EAJ-PNVri herriaren alde egin dugun lan onari esker, nahiz eta akatsak ere izan ditugun. Orain bi talde eskutik goaz, EAJ-PNV eta EA. Guk, orain arte erakutsi duguten konfidantza ematen jarraitzeko eskatzen diogu herritarrari.



Izaskun Larrea (independientea)

Umeek herri mailan dituzten arazoak konpontzea espero dut, batez ere ikastolan.



Iñaki Ugarteburu (independientea)

Kirol eskaintza duina egon dadila Elgetan adin ezberdineko herritarrentzako.



Maria Jesus Lete Laskurain

Orain arte egin dudana bezala, aurrerantzean ere, ahalegin guztiak egingo ditut herriaren alde.



Antonio Iturrigatzelu

Orainarte moduan jarraituko du gure taldeak baserriaren alde.

Bidaia erotikoa

Kaixo GOIBEKOKALE irakurtzen zaudeteno, gu D.B.H-ko 2. mailako ikasleak gara eta bidaia erotikoa baten gertakizun bat kontatzea erabaki dugu oraingoan.

Arantxa eta Iñaki aspaldiko bi lagun dira. Txiki-txikitatik eza gutzen dira. Elkar lagundu izan dira bi anaia-arreba laguntzen diren bezala, baina hauek banandu egin behar izan ziren eta bakoitzak bere bizitzatoki banatan jarraitu, urte askotan ez zuten elkarren berririk, baina heldu zitzaizkien eguna.

Arantxa Camberratik eta Iñaki Haititik Sondikako aireportura iritsi ziren 96ko Aste Santuan, hauek beraien familiak bisitatzera etorri ziren Euskal Herrira. Arantxari aurpegi eza-guna egin zitzaion Iña-

kirena eta berarengana hurbiltzea bururatu zitzaion, hau galdetuz:

-Barkatu. Non-dik zatoz? Iñaki oso harrituta gelditu zen eta Arantxak egindako galderari erantzun zion:

-Ni Haititik natortor; baina hemengoana naiz, Iñaki deitzen naiz eta zu Arantxa izango zara.-Arantxa negarrez hasi zen Iñaki zela konturatzean, orduan biak Elgetara etorri ziren.

Pare bat egun pasatu ondoren eta beraien gertakizun eta abentura gehienak kontatu eta gero Arantxak esan zion:

-Zergatik ez dugu elkarrekin gure txikitako ametsetako bidaia bat egiten?

Iñakiri ongi iruditu zitzaion eta toki hotz batetara joatea bururatu zitzaion. Iñakik Islandiara joatea nahi zuen, baina Arantxari

gehiago gustatzen zitzaion Kanada iparraldeko edo Groelandiako irla batetara joatea. Hala ere, azkenean Alaska iparraldeko herri batetara joatea bururatu zitzaion. Baina noiz joan? Arantxak Camberrera itzuli behar zuen. Orduan, arazoa konpotzeko, udako oporretan joatea pentsatu zuten, gainera biek abuztuko hilabetea hartu zuten oporretako.

Uztailaren 31an herriz Sondikan egin zuten topo eta emozionala zeuden, hurrengo egunean Alaskara joan behar zutelako.

Abuztuaren 12a iritsi zen eta biak oso ondo

pasatzen zebiltzan Alaskan, inoiz ez zuten pentsatu horrelako bidaia erotikoa bat egingo zutela elkarrekin eta gainera horrenbeste urte igaro ondoren.


Bertako klima, lurraldea, jendea... eza-gutu ondoren itzultzeko garaia etorri zen eta bidaia hau inoiz ez ahazteko Alaskako dozena bat txakur ekarri zituzten, sei bakoitzarentzat, horrela beraien bidaia inoiz ez zuten ahaztu bizi izan ziren bitartean, naiz eta jubilatutakoan Arantxa eta Iñaki Euskal Herrira itzuli.

DBHko 2.maila




HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

Hasteko, ATZEGI atzeratu psiki-koen elkarte aurreraketa natorkizue. Sasoi batean, 1.960an, guraso batzuek pertsona hauendako hutsune batzuk betetzearren elkartu eta sortutakoa dugu. Integrazio eta laguntza baten beharraren ondorio gisa sortzen da ATZEGI.

Sasoi haretan, gurasoak noraezean ibili baziren ere, helburua garbi zuten. Pertsona atzeratuak INTEGRATZEA zen. Helburua finkotuta zegoenez, bitartekoak landu ziren. Alde batetik, eskola bereziak sortu ziren heziketa egoki bat bermatzeko eta bestalde, edadean arabera irtenbideak. Hau da, heldutasunak eskatzen duen neurrikoak, halaber, lana eta astialdirako guneak.

Elkarte honek betetzen duen funtzioa pertsona hauek maila guztietan barneratzea eta bizitza duin eta arrunt bat prestatzen laguntzea da. Honetarako batik bat eskola bereziak sortu ziren, honek maila honetan jendearen prestakuntza hobetzea ekarri du, lantegiak ere prestatu dira, astialdirako guneak sortu dira, babestutako etxeak... Sormen guzti hau integratzeko sortu da, baina integratzeak etorkizuna lantzea ere suposatzen du. Etorkizuna lantzea da integrazioaren barnean ATZEGIren oraingo erronka nagusia. Etorkizuna lantzea batez ere kontutan izanda, gurasoak zahartzen direnean behar dituzten baliabideak eskuratzeko eta gurasoen ardurari erantzuteko.



Elkarte honek atzeratuari integrazioarako bideak eta laguntza eskaintzen dizkio, bizitza arrunt bat eramateko. Familiari dagokionez berdin, hau da, beste seme-alaba bat bezela onartu eta karga bat ez izatea ahalbidetu. Guzti hau elkartearen, eskolen, astialdirako zentruen, lantegien, familiaren eta gizartearen arteko elkarlanarekin lortzen dute. Honetarako baliabideak batik bat, informazioa herriz-herri zabaltzea eta elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuen laguntza jasotzea izango lirateke.

ATZEGI elkartearen inguruan mugitzen den jendea orokorrean familiartekoa (baskideak orohar), lagunak edo oso gertuko jendea. Bere egoitza zentrala Donostian dago, bertan gizarte teknikaria, psikologoa, abokatuak, lehendakaria, idazkaria... enpresa bat bezela antolatuta dago. Elkartearen dinamika bi hilabetetik behin elkartu eta dauden gaiak eta lanak aztertzea izaten da. Esan digutenez oraindik ere partaide gehienak gurasoak dira. Beraiek anaia-arrebei eskeinitako erosotasuna dela eta partaide gahienak gurasoak dira.

KAN-

PAINA: " Ez dakizu zer sentitzen dudan, lastima! sentitzen dut."

Erabilitako lemaren zentzua atzeratuak ere sentitu egiten dutela, sentitutakoa adierazten dutela eta inguruko gertakizunetatik ohartzeko zentzua kaleratzea da. Beste edozein pertsonak bezela bere bizitzako lehen urteak igaro, eskola aroa pasatu, etorkizuna prestatzen hasi, maitemindu, haserretu, pozik bizi, sentimenduak besteak beste adierazi, bere gaitasunak landu, denbora librean bere gustoko gauzak egiteko erabili eta bizitzak ematen dituen zertzelada ezberdinak nozitzen dituela gu "normalak" nozitu eta sentitzen ditugun bezelaxe.

Estetika eta Masaia



MAITE CEBRIAN

Andra Mari Plaza, 1
Tel: 943 76 82 72 Elgeta

Komentu Kalea, 12 - 1
Tel: 94 681 63 75 Durango



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Futbitoko erdifinalak nortzuk jokatuko dituzten erabakita daude

Alferrak, Angiozar, Bar El Arco eta Txapela dira sailkatu direnak

Txapelketa oraindik amaitu gabe dagoenean, erabakita daude nortzuk izango diren aurtengo txapelketako erdifinalak jokatuko dituztenak. Beti bezala, lau taldek izango dute txapelketa irabazteko aukera. Sailkapen nagusiko lehenengo lau taldeak, hain zuzen ere. Laugarren dagoen taldeak momentu honetan eta bi partidaren faltan zazpi pun-

tuko aldea ateratzen dio bosgarren sailkatua dagoen H.H.H.ri. Beraz, azken hauek ez dute sailkatzeko aukerarik. Oraindik ezin dira jakin finalerdiak nortzuk eta noren kontra jokatuko dituzten. Behin liga amaitzean sailkapenburuak laugarrenaren kontra jokatu du eta beste finalerdia bigarrenak eta hirugarrenak jokatu dute euren artean.

Nesken kasuan, gauzak ere nahiko erabakita daude eta finala Aldrebesak eta Joixon Bertanekoek jokatu dute Gu Gaz Gu-koek ez dute eta punturik lortu. Azken talde honetako jokalariek besteen aldean gazteagoak dira, baina ziur orain arte bezala jarraituz datorren urtean emaitza hobekiak lortuko dituztela.

Futbito Sailkapenak

Neskak

Taldea	J	I	G	B	Punt.
Aldrebesak	7	6	1	0	12
J. Bertan	7	5	2	0	10
Gu gaz gu	7	0	7	0	0

Golegileak

1. ALAINE (J. BERTAN) 18
2. NAGORE (ALDREBESAK) 13
3. EVA (ALDREBESAK) 13

Mutirik

Taldea	J	I	G	B	Punt.
Alferrak	11	8	2	1	17
Angiozar	11	8	3	0	16
Bar el Arco	11	7	4	0	14
Txapela	10	6	2	2	14
HHH	10	3	6	1	7
EHA	12	3	9	0	6
La kokotxa	9	0	9	0	0

Golegileak

1. SERGIO (BAR EL ARCO) 19
2. J. CARLOS (BAR EL ARCO) 16
3. HARITZ GALLASTEGI (TXAPELA) 15

Gaztetxoak finalerdietatik gertu

Sailkatze faseko bost partidetatik lau jokatu ostean, Elgetako alebinak eskubaloiko Eskualdeko txapelketako finalerdietara sailkatzeko aukeran daude. Orain arte jokatu-tako lau partidetatik bi irabazi dituzte, Aizarnazabalen (21-8) eta Ordiziaren (12-9) aurka. Beste bi galdu egin dituzte Errenteriaren (22-14) eta Irunen (20-17) aurka. Azken partida Loiolaren aurka jokatu dute eta irabaziaz gero ematen diren beste emaitzei erreparatu.



Txapelketa polita burutu du eskubaloiko taldeak.

IRAMA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel. 768078

Kanpotarrak ikusi behar

Ubera II eta Arantzeta kanporatuak izan eta gero ez da elgetarrik geratzen 4 t'erdiko txapelketan.

Xabier Ubera kaleratua izan ondoren, 4 t'erdiko txapelketa herriko ordezkari gabe geratu zaigu. Ubera II.ak txapelketako lehen bi kanporaketak gainditu ostean, eta lesio batetik irten ondoren, ezin izan zuen Martinez de Eulate Iruñearra gainditu. Partida oso arraroa izan zen, izan ere, partidaren lehen zatian jaun eta jabe izan genuen Xabier, zortzi tanturen alde lortuz, 12-4.

Arazo gutxiko norgehiagoka zirudienak

180 graduko aldaketa jasan zuen eta nafarra zuzenean 22. kartoiraino joan zen. Ez da erraza zergertatu zen azaltzea. Kasu hauetan esaten den bezala "pelotaren haunditasuna" edota "22 tantu egin arte ezin dela partida galdutzat eman" bezalako topikoetara jotzea besterik ez da geratzen. Azken emaitza Ubera II.ak 13 Martinez de Eulatek 22.

Eñautek ere nahi baino lehenago esan dio agur txapelketari. Honek

ere, lehenago bi kanporaketak gainditu ondoren hirugarrena ezin izan zuen gainditu Gisasolaren aurka 22 eta 18 galduz. Arantzeta berak onartu bezala partida txarra jokatu zuen.


Aitor garaile Zaramagan

Aitor Uberak, Unai Iñurrategi bikote zuela,

Gasteizeko Zaramaga auzoan urtero jokatzen den txapelketa bereganatu zuen. Finalean Urien eta Elorriaga abadiñoarrak izan zituzten aurrez-aurre. Partida gogorra eta maila onekoa izan zen lau pelotariak finalean egoterraren arrazoiak argi utzi zituztelarik. Bat aipatzekotan, Iñurrategi aipatu behar bere pelotakadekin partida hautsi baitzuen.

Elkoro- Eugi Aspeko finalean

Aitor Elkorok Patxi Eugi



Xabierrek agur esan dio txapelketari.

izango du aurkari datorren hilaren 6an, azken uneko atzerapenik ez badago, Aspek antolatutako buruz-buruko finalean. Eibarko Astelenan jokatu da eta garaileak ez du ezer irabaziko, ezer gutxi. Jakina da bi enpresak banandu zirenetik pelotak zerbait falta duela eta hori datorren hilaren 6tik aurrera ikusiko da. Dena dela, Aspeko txapela lortzea ez da gutxi aurrean izango duen pelotariagatik batez ere, Eugi, gaur egungo manomanistik onenatarikoa.

Askasibar postuak egiten hasi da

Oraindik hankako mina zerk eragiten dion ez dakien arren, piskanaka, lasterketetan aurrean sar-tzen hasi zaigu Oskar. Baina zorigaitzak badirudi aurten ez diola bakean uzten, Legazpiko klasikoan, harri bat bitarteko, erorikoa izan eta kolpe latza jaso baitzuen.

Hala ere, eta hurrengo astean Berriatuako lasterketan bosgarren postuan iritsi zen tropelean lehendabizikoa izan zelarik. Duela bi aste ere Zamudioko lasterketan hamalagarren postua eskuratu zuen erritmo gogorrean joan zen lasterketa batean.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

75.ena eta gero 100.enaren zain

Anaiarteko egun jendetsua Elgetan EMFren 75.urteurrenean.



Azkenean heldu zen maiatzaren 23a. Euskal Mendizale Federakundearen 75.urteurrena ospatzera, Euskal Herriko bazter guztietatik etorri ziren mendizaleak. Zenbat mendizale etorri ziren jakitea ia ezinezkoa den arren 3.000tik gora egongo ziren eguerdi aldean.

Mendizaleen jaiari aurreko astean zehar egindako hitzaldiek eman zioten hasiera. Maiatzak 22an Oskorrik frontoia kantariz bete zuen. Eta maiatzak 23an herrian zehar ibili zen jende uholdea hemendik 25 urte arte ezingo da errepikatu.

Maiatzak 23an goiz goizetik hasi ziren maldak igotzen iazko abenduaren 19an, Aralarren, "Goazen mendirik mendi" le-mapean Elgetarako bidea hartu zuten bost makilak. Asentzion elkartu ziren bostak: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparraldea eta Nafarroatik etorritako mendizaleak. Bertan euskal mendizaleen aintzindari bik Oloron eta Ripak gurekin ez dauden mendizaleak gogorarazten zituzten. Beste garai batean albarka, blusa eta txapelarekin joaten omen ziren mendira.





Meza entzun ostean, mendizale guztiak Mendizalen plazara jeitsi ziren. Orain dela 75 urte sosrtutako Federakundearen urteurrena ospatzeko zeuden ekintzak ikustera. Bertan Lizaso, Egaña eta Ainhoa Agirreazaldegik agurra eskeaini zieten. Federakundeko lehendakariak, Paco Iriondok, 75. urteurrena ospatzeko zegoen plaka erakusten zuen bitartean. Balorazio positiboa egin zuen lehendakariak mendizale pila elkartu zirela eta.


Elgetako eta Elgoibarko Haritz taldeko dantzariak, Ohiane eta Eneritz trikitilariak...euren saioa eskeini zuten ondoren. Eguneko momentu hunkigarriena Xebe Peña euskal mendizaletasunaren aintzindari, egile eta lekukoari eginiko omenaldia izan zen.



Bazkariak 600 lagun baino gehiago bildu zituen frontoian eta han ere omendaldia eskaini zitzaizkien hainbat laguni: Josetxo Uria, Pedro Udaondo, Alberto Besga, Juan Ignacio Lorente, Juanito Salazar, Amaia Aranzabal, Pili Gamuza, Juanito Oiartzabal, Iñaki San Juan eta Txato Agirre zeuden.

Ondoren plazan Maixa eta Itziarrek mendizaleen jaiari bukaera eman zioten.

Egun ederra bizitzeko aukera izan genuen, gutxiago geratzen da 100 urte betetzeko.





Basotik basora

Montañeruen eguna pasau da, etorri ziran alde guztietatik motxilia bizkarrian hartuta. Horrelako egunak ederrak izaten dira lagun artian egoteko, alkarri abenturak kontatzeko, eta behin eta berriz kontautako ipuiñak berriz be kontatzeko ahaztu baiño lehen.

Honek egunotan entzungo ziñuen 18.000 federatu inguru dittuela Euskal Mendi Federaziñuak. Federatuok Euskal Herriko herrialde guztietakoak gara, eta federaziño maillan, Euskal Herriko indartsuenetako bat izango da. Gainera, Euskal Federaziñua Españakotik aparte xamar dabil, eta federatu-txartel propiua be badake.

Ekaiñan 6xan ka-

zari eta peskarixak be alkartuko dira Dimako aireportu zaharrian. Hor be juntauko dira lagun zaharrik kontu-kontari. Jakina da kazarixak eta peskarixak exajeratu hutsak dirala, baiña dana ez da gizurra izaten; izan be, hamai-ka istorixo gertatzen jakoz dabilenai. Ibilli danak daki bakarrrik zelako gauza arraruak pasatzen dian kazan. Gero, kontatzerakuan, ba pixka bat puztu, txukundu eta grazia apur batekin kontau bihar. Hortik aurrera, zenbat eta gehixautan kontau, gero eta istorixa hobia. Istorixak istorixa, nik behintzat, mendixan edo kazan, makina bat leku eder asko ezagutzeko aukeria eduki dot bai Euskal Herrixan, bai he-

mendik kanpora.

Geu be, zertan federauta egongo, eta horretan bi deportiotan egon bihar: montañismuan eta kazan. Jakinian, gainera, hortik ez dagoela irabazirik, gastuak besteik ez. Mendira noizian behin faten gara, egunez denbora ona eta gabaz zaparradaik ez bada egon behintzat. Kazan be hor ibiltzen gara denboraldi osuan trumoiak jo edo euzkixa egiñ, gure lagun txarrixen atzetik.

Kirol sanuak dira, egun osua mendixan naturiak in bat egindda; eta konpetiziñoik ez dagoenez, lasai hartzeko modukuak. Lagunarte edarra, hamarretakua, bizi-modu sanua. Gaiñera, edade guztientzako kiro-

lak dira. Guk ikusi dogu 9 urteko mutiko bat 3.000 metroko menditontorrian, ta jubilau eta gero dabizenak be mordua dira. Kazan be, normalian txikitxatik hasi, eta inddarrik laguntzen daben bittartian, hartu eskupetia bizkarrian eta hor ibilliko dira zeozen atzetik. Mendirako gero eta erraztasun gehixau dagoz: mendiko liburu eta mapa, egunkarixetako artikulua eta mendi ibillerak, aldizkarixak be gero eta ugari-xaguak, mendixan bideak gero eta hobeto markautan,... Kazan, berriz, gero eta zailtasun haundixaguak: gero eta prohibixiño gehixau (artikulo tres), traba haundixaguak permisua etartzeko, gero eta kaza gutxiu, gaztiak be ez dake afiziñoik, ...

Dakagun edadia eukitta, eta ahal dogun bittartian behintzat, basoz baso edo mendiz mendi jarraitu biharko dogu.

Enrike Gorrotxategi

Geu be, zertan federauta egongo, eta horretan bi deportiotan egon bihar: montañismuan eta kazan.

**IBAIBA-
RRIAGA**
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

**E
HARATEGIA
A
S
T**

San Roke 6
tel: 768168

Iragarri zaitez.
Tel:78.90.85
Faxa: 789043

Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.

LAN HOTZ

Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

TABERNA

BARNA DE ROKUA
DATE TXEAL

tel: 768273



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

ELGETA

UDAL HAUTESKUNDEAK Ekainaren 13an



KOALIZIOA EAJ-PNV / EA

PATXI BASAURI ELKORO (EAJ-PNV)
IZASKUN LARREA BERGARETXE (Independientea)
IÑAKI UGARTEBURU ARTAMENDI (Independientea)
M^a Jesus Lete Laskurain (EAJ-PNV)
Antonio Iturricastillo Askasibar (EAJ-PNV)
Larraitz Retolaza Elkoro (EAJ-PNV)
Julian Markiegi Areitio-Aurtena (Independientea)

Ordezkoak

Carlos Fernandez Gallego (Independientea)
Begoña Ardanza Arando (EAJ-PNV)
Patxi Aranzabal Albistegi (EA)



Zure BOTOA EAJ-PNV / EA

Zuk nahi duzun herria

Elgetarrok AURRERA!!

Euskal Herritarrok



elkarrekin lan egin eta
bozkatzeko garaia heldu da

bozkatu